

## Prensa Oharra Nota de Prensa

# Nerbioiko parke linealeko bide berdeak tarte operatibo berri bat gehituko du Saratxo industrialdeari zerbitzua emateko

*Gaur egun, Urduña Delikako tarteak lizitazio fase aurreratuetan daude, bai eta Laudio Arrankudiagan Bizkaiko mugarekin lotzen duena ere*

**Gasteiz, 2024ko uztailaren 31.** Nerbioiko parke linealeko bide berdeak, Aiaraldea eskualdean, tarte berri bat gehitzen die lehendik daudenei, Refor eta Saratxo industrialdearen arteko obrak amaitu baitira. Ramiro González diputatu nagusia eta Aitor Aldasoro Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordea Amurrionara joan dira gaur goizean tarte berri hori bisitatzera, eta bertan Saray Zárate Ekonomiaren Garapeneko diputatuarekin eta Txerra Molinuevo Amurrioko alkatearekin egon dira.

Trazadura hori, diputatu nagusiak adierazi duenez, *"beste urrats bat da motorizatu gabeko mugikortasun jasangarri baterantz aurrera egiteko, oinezkoak eta txirrindulariak, industria gunearekin lotuz -Saratxo eta Kalzadako industrialdeak-, non 28 enpresa kokatuta baitaude. Horrela, egunero lantokira joaten diren 980 langile baino gehiagori aukera ematen diegu modu jasangarri, seguru eta osasungarrian egiteko"*.

Duela gutxi amaitu diren lanek bide berdeari jarraipena emateko aukera ematen dute Amurrioko hegoaldeko hiri tartetik kanpo. Egindako proposamenak herrigunea Refor-eko kirol eremuaren parean Saratxoko industrialdearen ingurunearekin lotzea lortu du.

Aitor Aldasoro Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordeak erakundeen arteko lankidetzaz nabarmendu du, *"bultzada berri honekin, bi administrazioen artean 2022aren amaieran sinatutako hitzarmenarekin, gainerako 11 tarteetatik 5 osatu ahal izango ditugu, Nerbioiko parke linealaren proiektua biribildu egingo dugu, 2006an lehen jarduketak hasi zirenetik 18 urte igaro direnean"*. Aldasororen arabera, Eusko Jaurlaritzak 2,2 milioi euroekin finantzatzen ditu lan horiek, *"udalerrak, pertsonak eta natura konektatzeko"* helburuarekin.

Esku hartzea kilometro batean egin da, Nerbioi ibaiaren eskuineko ertzean, ibai ibilguarekiko paraleloan eta ibaiarekin muga egiten duten industria lurzatiaren atzean. Obrak honako hauek izan dira: 150 metro inguruko harri lubeta bat eraikitzea, lurzoruak deskontaminatzea eta lehengoratztea, industrialdearen urbanizazioa hobetzea eta ingurune osoa ekologia- eta paisaia-aldetik egokitzea, espezie autoktonoak ereinda eta landatuta.

## Prensa Oharra Nota de Prensa

Tarte hori "Nerbioiko Parke Linealaren Garapena" ekimenaren barruan dago, Aiaraldeko Berehalako Jarduera Planeko A8 Ingurumen eta Mugikortasun Jasangarriaren proiektu eragilean jaso. Jarduera horren helburua da eskualdeko mugikortasuna eta lotura hobetzea udalerrien eta lurralde historikoen artean, eta mugikortasun jasagarria eta emisioen murrizketa sustatzea.

Jarduketa horiek gauzatzeko, 2022an lankidetzeta hitzarmen bat sinatu zuten Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak, bi administrazioek obrak finantzatu eta egin zitzaten. Foru Aldundia arduratu da gauzatze proiektuak idazteaz, obrak kontratatu eta adjudikatzeaz eta obra zuzentzeaz.

Bi administrazioen arteko akordio hori ingurumen egokia izaten eta klima aldaketaren aurka borrokatzen laguntzen duten neurrietan gauzatu da. Hitzarmen horren oinarrian dago baliabide natural guztien erabilera arrazionala zaintzea, bizi kalitatea babestu eta hobetzeko, eta ingurumena defendatu eta lehengoratzeko. Horren guztiaren helburua da erantzun integrala ematea susperraldi ekonomikoaren eta enpleguaren funtsezko erronkei.

Inbertsioa 1.273.853 eurokoa izan da (BEZa barne), eta gauzatzeko epea 8 hilabetekoa.

Nerbioiko parke linealak 16 km baino gehiago ditu zerbitzuan, eta Laudioko eta Amurrioko herriguneak lotzen ditu. Oinezkoak zein txirrindulariak kontuan hartuta, iaz, 108.000 erabiltzailek baino gehiagok erabili zuten.

Gaur egun lizitazio fase aurreratueta daude Urduña Delikako tarteak, Amurrioko hegoaldeko administrazio batzarrak Urduñarekin eta Amurriorekin lotzeko funtsezko tarte dena. Eta, era berean, Laudio Arrankudiagako mugarekin lotzen duena 150 metroko tarte txiki batekin. Bi puntu horietako obrak urte amaieran has litezke.

Bestalde, aurreikusita dago irailean onestea Saratxo industrialdea eta Los Mesones auzoa lotzen dituen proiektua, eta hortik Foru Aldundiak A625 errepidean Saratxoko saihesbidearekin eta loturarekin paraleloan eraiki zuen tartearekin.